

5

Diglosiaren purgatorioaz artikuluari buruzko iritzi bat

Lionel Joly

Euskaltzaindia

ljoly@euskaltzaindia.net

Sarrera-data: 2011-06-29 | Onartze-data: 2011-07-30

Laburpena. Zalbidetik bere ohiko lan moduari eusten dio: lana luzea da, azalpen teorikoa eta bere aplikazioa euskarari xeheki azalduta dago eta oso pedagogikoa da. Interes gehien dituzten atalak hirugarren, laugarren eta bosgarren atalak dira. Hirugarrena diglosiaren kontzeptuaren ibilbide teorikoa ezagutzeko eta aztertzeko; laugarrena eta bosgarrena aldiz, bere aplikazioa gaurko EHko egoerari ikusteko eta euskararen etorkizunerako Zalbidetik kontzeptu honi aitortzen dion garrantzia ikusteko. • **Hitz-gakoak:** *diglosia, menderatuen diglosia, konpartimentazio soziofuntzionala, alienazioa.*

Abstract. An opinion about the article on the purgatory of diglossia. Zalbidetik sticks to his usual way of working: the work is long, its theoretical presentation and application to Basque is explained in detail, and it is very pedagogical. The most interesting sections are the third, fourth and fifth ones. The third to get to know and analyse the theoretical development of the concept diglossia; the fourth and fifth to see how it applies to the present situation of the Basque Country and to see the importance that Zalbidetik attaches to this concept for the future of Basque. • **Key Words:** *diglossia, diglossia of the dominated, sociofunctional compartmentalisation, alienation.*

1. M. ZALBIDEREN ARTIKULUAREN AURKEZPEN LABURRA

I
Mikel Zalbide Euskal Herriko esfera soziolinguistikoa izen ezaguna da, ibilbide luzea du gaian, artikuluan idatzi izan ditu azken 30 urteetan gutxienez eta bere lana definitzeko esan dezakegu normalean lanketa teoriko sakona eta anitza egiten duela eta bere lanei exhaustibitate ahalik eta handiena saiatzen diela ematen. Diglosiari buruzko artikulua luze honetan Zalbidek bere ohiko lan moduari eusten dio: lana luzea da, 139 orrialdetakoa, azalpen teorikoa eta bere aplikazioa euskarari xeheki azalduta dago eta oso pedagogikoa da.

Lanak bost atal nagusi ditu. Aurreneko atala sarrera bat da bertan saioaren nondik norakoak azaltzen ditu: zergatik egin du artikulua hau, zertarako eta artikulua nola ekoiztu dagoen azaltzen du.

Bigarren atalean diglosiari buruzko auzia EHko egoera soziolinguistikoa eta bere tradizio zientifikoa kokatzen du, Mitxelenaren 1977ko hitzak gogoraraziz.

Hirugarren atala da Zalbideren artikulua atal luzeena, bertan errebaso sakona egiten dio diglosiaren kontzeptu teorikoari, kontzeptuaren ibilbide osoa deskribatuz hasi Rhodisen 1885eko aurreneko aipamenetik eta bukatu Hudsonen 2002ko proposamenarekin.

Laugarren eta bosgarren atalak EHko egoerari aplikazioa da: laugarren atalean EHko egoera ea diglosikoa den aztertzen du Zalbidek eta bosgarrenean euskararen etorkizunerako diglosiak zein garrantzia duen azaltzen du.

2. M. ZALBIDEREN ARTIKULUAREN KRITIKA OROKORRA

I
“Diglosia” kontzeptuaren kasuan gertatzen den bezala “kritika” kontzeptuak adiera bat baino gehiago ditu, kasu honetan noski artikulua zientifikoa izanik bere adiera zientifikoa ulertzen da: kritikatzeko da, hain zuzen ere, ikuspegi zientifikoa eta kontrastatu batetik abiatuz, iritzi bat ematea Zalbideren artikuluari buruz, bere alde onak eta ez hain onak azpimarratuz. Hori da egiten saiatuko garena hemen, nahiz eta egia izan artikulua egileak, Zalbidek, traiektoria askoz luzeagoa eta sakonagoa eduki soziolinguistikaren lerro horiek idazten dituenak baino.

Orokorrean Zalbideren lana oso baliagarria da, “diglosia” kontzeptuaren inguruko gogoeta teoriko hain sakonik gutxi dago soziolinguistikaren esparruan eta ez dut ezagutzen besterik euskararen esparruan. Artikuluan eta bibliografian argi agertzen denez Zalbidek baliatu duen bibliografia

Zalbidek bere ohiko lan moduari eusten dio: lana luzea da, 139 orrialdetakoa, azalpen teorikoa eta bere aplikazioa euskarari xeheki azalduta dago eta oso pedagogikoa da.

**Interes gehien
dituzten atalak
hirugarren,
laugarren eta
bosgarren atalak
dira.**

nazioartekoa da eta oso sakona. Azalpenak emateko iturrietara jo du eta exhaustiboa izan da bere irakurketa lanean.

Lehenengo eta bigarren ataletan Zalbidetik bere lan-saioa kokatzen du, bigarren ataletan Mitxelenari buruzko aipua baliatuz gaia euskararen testuinguruan eta tradizioan kokatzen du Zalbidetik eta “diglosia” kontzeptua hizkuntza plangintzaren esparruarekin duen lotura azpimarratzen du, euskararen biziraupenerako zein garrantzia duen kontzeptuak azaleratuz. Zalbidetik diglosiaren kontzeptua maila teorikoan aztertu ez ezik, kontzeptuaren atzean ezkutatzen diren arazo praktikoak ere bere artikuluan tratatuko dituela aurreratzen digu bigarren atal honetan. Berez lanketa horiek laugarren eta bosgarren ataletan burutzen ditu.

Interes gehien dituzten atalak hirugarren, laugarren eta bosgarren atalak dira. Hirugarrena diglosiaren kontzeptuaren ibilbide teorikoa eza-gutzeko eta aztertzeko; laugarrena eta bosgarrena aldiz, bere aplikazioa gaurko EHko egoerari ikusteko eta euskararen etorkizunerako Zalbidetik kontzeptu honi aitortzen dion garrantzia ikusteko.

3. ATALAREN KRITIKA: KONTZEPTUAREN DESKRIBAPEN TEORIKOA

Hirugarren atalak 59 orrialde ditu, bertan kontzeptuaren inguruan, bere erabilera eta definizioan, soziolinguisten artean dagoen adostasun eza azpimarratzen Zalbidetik; Mauro Fernandez-ek (1993) aipatzen duen moduan kontzeptu erabilienetarikoa bada ere diglosia soziolinguistikaren esparruan, ez da modu unibokoan ulertu, arrazoi horrek bultzatu du Zalbidetik bere saioa idaztera. Oso egokia da maila teorikoan Zalbidetik egiten duen deskribapena eta diglosia kontzeptua deskribatzeko erabili ohi diren parametroen arabera egiten du: esan nahi da autore garrantzitsuenek kontzeptuaren inguruan aipatu dutena laburbilduz eta definizio bakoitzaren ezaugarriak agerian utziz (Boyer: 1986, 1996, 2001; Fasold: 1996; Hudson: 1992, 2002). Deskripzio hutsean aldiz ez da geratzen Zalbidetik eta bereziki aberatsak dira autoreak egiten dituen balorazioak eta kritikak eredu bakoitzari buruz.

Diglosiaren ibilbidea XIX. mendeko Greziako egoera deskribatzean hasten da, Zalbidetik azken informazio iturriak erabiltzen ditu bere deskribapena egiteko, Mauro Fernandez-en 2005eko artikulua adibidez (Fernandez 1995, 2005). Ondoren jatorrizko iturrietara jotzen du Fergusonen, Fishmanen, Hudsonen eta soziolinguistika “kritikoaren” ikuspuntua adierazteko. Baina deskribapena egin ez ezik, Zalbidetik teoria bakoitzaren testuinguru epistemologikoa eta historikoa aipatzen saiatzen da eta kasu

bakoitza kritikatzan du. Hori da Zalbidereen ekarpen handiena, deskribatu ez ezik kontzeptuaren garapenaren zergatia azaltzen du eta ikuspuntu bakoitzaren ahulguneak eta indarguneak azpimarratzen ditu. Noski, Zalbidereen iritzia da kasu guztietan agertzen dena, hala ere zaila egiten da Zalbiderei kontrakoa eramatea, normalean berea iritzi kontrastatua izaten baita eta ez badugu ere denok konpartitu behar, gogoetarako eta norberak bere iritzia osatzeko aukera ematen du.

Zalbidek Fergusonen ereduaren mugak, adibidez, 43 orrialdean zehazten ditu dialekto vs hizkuntza gaiari buruzko eztabaida zabalduz. Ikuspuntu honetatik Fishmanen eredia Fergusonen ereduaren osaketa logikoa da. Fishmanena dirudi Zalbiderentzat diglosiari buruzko definizio argiena eta interesgarriena. Alde txar gutxi ikusten dizkio eta bere bi ezaugarri oinarritzkoenak azpimarratzen ditu: konpartimentazio sozio-funtzionala alde batetik, eta egonkortasuna bestetik.

Menderatuen diglosia, EHn gehien zabaldu den ikuspuntua dena, da ondoren Zalbidek aurkezten eta kritikatzan duena. Menderatuen diglosiaren ekarpena aurkeztu ondoren, ikuspuntu honen ekarpenak eta mugak azaltzen ditu. Funtsean badirudi Ferguson/Fishman eta menderatuen arteko desadostasuna diglosiaren kontzeptuaz gehienbat azterketa objektua definitzean bi eskolen artean dagoen aldetik sortzen dela. Ipar-amerikarren ikuspuntua sinkronikoa bada, menderatuena diakronikoa da. Egoera diglosikoa Fergusonen arabera “aski egonkorra” bada, menderatuen kasuan ez da egonkorra eta beraz eskola bakoitzak aztertzen duen objektua ez da zuzen zuzenean beste eskolak aztertzen duen objektua, “diglosia” izena biek erabiltzen badute ere.

Laburbilduz, nire iritziak, Ferguson / Fishmanen definizioak alde batetik eta menderatuen definizioa bestetik bi objektu zientifiko ezberdinak aztertzen dituzte: egoera egonkor bat kasu batean eta bestean bilakaera bat gehienetan negatiboa dena, hizkuntza baten desagertzea edo egoera soziolinguistikoko eleaniztun baten bilakaera. Bi objektu ezberdinak beraz eta bigarren azterketa objektu honetarako iparramerikarrek beste izen bat erabili ohi dute: “language shift” edo “language death” baten deskribapena litzateke. “Language shift” edo “language death” hori bada azterketa eremu bat Ipar-Amerikako soziolinguisten artean baina diglosiarekin nahasten ez dena nahiz eta aitortu, noski, diglosia egoera apurtzen denean “language shift” etor litekeela.

Zalbide kritikoa agertzen da menderatuen ereduarekin eta Lüdi eta Sutzaren adibidea erabiliz (72. or.) zalantzan jartzen du egoera diglosikoa bat derrigorrez gatazkatsua izan daitekeenik. Modu egokian konfliktua kontzeptuari orrialde batzuk eskaini die Zalbidek eta kontzeptua zein

Kontzeptu erabilienetarikoa bada ere diglosia soziolinguistikaren esparruan, ez da modu unibokoan ulertu, arrazoi horrek bultzatu du Zalbide bere saioa idaztera.

**Noski,
Zalbideren iritzia
da kasu guztietan
agertzen dena,
hala ere zaila
egiten da
Zalbideri
kontrakoa
eramatea,
normalean berea
iritzi
kontrastatua
izaten baita.**

lauso den azpimarratzen du. Agian interesgarria litzateke gehiago sakontzea ere kontzeptu honetan. Gatazkaz hasten denean hitz egiten “normalkuntzaz” hitz egiten hasten denean bezala (ikus Lafont 1997 eta Calvet: 1974, 1987, 1993) balore moraletan sartzen gara: normala zer den zehazten hasteak arazoak sortzen ditu eta deskripzioaren hotzetik kanpo gelditzen da. Maila epistemologikoan sartzea interesgarria litzateke baina luzeegia hemen xeheki azaltzeko (Joly: 2004, 290-310), hala ere laburbiltzeko aipa dezagun hemen menderatuen diglosian irudikapenek leku handi hartzen dutela eta menderatuen definizio moldearen arabera, egoera diglosiko bat gatazkatsua da ezin bestean: hizkuntzen banaketa funtzionalak eta errepresentazionalak menperatze-fenomeno bat inplikatzan dute; eta horregatik, haien aburuz, diglosiak bi irtenbide bakarrik izan ditzake: hizkuntza gutxituaren ordezkapena, edo hizkuntza gutxituaren normalizazioa. Beraien arabera, beraz, diglosiarekin akabatu egin behar da eta normalizazioa lortzeko hizkuntza-plangintzazko prozesu bat abiatu behar da.

Eredu gatazkatsu honetan prestigioak eta hizkuntza irudikapenak leku handia hartzen dute. Gizartean banaketa funtzional hierarkizatua gertatzen bada hizkuntzen artean, egoera hori ezin da izan justua. Behe aldaera baino ez dakiten pertsonen egoera diglosikoa nozitzen dute, besteak baino gutxiago sentitzen dira. Batzuk menderatzaileak dira (A dakitenak) eta besteak gutxituak, minorizatuak, menderatuak (b baino ez dakitenak). Hizkuntza gutxitua baino ez dakitenak alienatuak dira, Bourdieuk aipatzen duen bezala (Bourdieu: 1982): haien ekintzak menderatzaileen ikuspuntutik ikusten dituzte, adibidez, b hiztunarentzat bere hizkuntza ez da polita, A da polita eta egokia, prestigio handiagokoa. A erabiltzen duena b erabiltzen duena baino inteligenteagoa litzateke... Askotan, alienatuak beraiek egiten dutena gutxiestera heltzen dira, beren burua mesprezatzera, gorrotatzera: auto-gorrotuaren gatibu dira.

Bi eredu horien sortze testuinguru historikoa eta helburua aztertzea oso interesgarria gertatzen da eta partez agertzen bada ere Zalbideren artikuluan hemen emango den ikuspuntua ez da zuzen Zalbidek ematen duena. Menderatuen diglosiak, Iparramerikarren ereduaren salaketa eta deskonstrukzioa nahi du izan. Menderatuen ustez, Iparramerikako eredu klasikoak egoera diglosikoa iraunkorrek eta baketsuak begiztatzen ditu eta egoera diglosikoa armoniosoa dela kontsideratzean, egoera diglosikoa onartzera bultzatzen du, normala izango balitz bezala eta horregatik iraunarazten du. Ikuspuntu honen arabera, diglosiaren eredu Iparramerikarrak hizkuntz eta gizarte zuzengabekeria iraunarazten ditu, glotofagia bultzatuz. Calvet-en arabera, Iparramerikako diglosia ereduaren arra-

kastaren zergatia, bultzatu zen une historikoan aurkitzen da. Afrikar in-
dependentzien garaian sortu zen, deskolonizazioaren garaian. Herrialde
anitz egoera soziolinguistiko konplexuan aurkitu ziren garaian hain
zuzen ere: hizkuntz kolonialaren nagusitasun ofizialari eguneroko
errealitate eleaniztun bati egiten zion aurre, herri berri horietan hizkuntza
bat baino dezente gehiago mintzatzen ziren eguneroko jardunean baina
hizkuntza ofiziala kolonizatzaileen hizkuntza jarraitzen zen izaten kasu
gehienetan. De faktoko egoera postkolonial honi, koadro, marko teoriko
bat emanez, iparramerikarren diglosia kontzeptuak egoera normalizatzen
du eta egonkortasuna eranstean dio Calvet-en ustez. Egoera horien zu-
zengabekeria eta hizkuntz gatazka estaltzen ditu eta egoera ez aldatzeko
joera bultzatzen du (Calvet, 1993: 45).

Calvet-en irakurketa eta menderatuen diglosia testuinguru politiko
(Zalbidek argi adierazten duen moduan 53 eta 54. orrialdeetan) eta epis-
temologiko jakin batean sortzen dira, gizarte psikologiaren sorrerarekin
paraleloak egin daitezkeelarik. Azurmendik (1999) gizarte psikologiaren
sorreraren testuinguru epistemologikoa aurkeztu izan du bere liburu
batean eta bere ustez, “(la) etapa postmoderna de la psicología social”
hasten den momentuan, ikertzaileak errealitatearen ezagupenaren efi-
merotasunaz eta iragankortasunaz konturatzen dira. Errealitatea histo-
rikoki inguratuta dagoela konturatzen dira: “el conocimiento de la
realidad consiste en algo efímero, anclado históricamente, con una his-
toricidad también cambiante desde el presente (tanto respecto al pasado
como respecto al futuro), por eso necesariamente incompleto” (Azurmendi
Ayerbe, 1999: 47). Ezagupenak, berez behin behinekoak dira eta
horregatik gizarte psikologoak izan behar du “un permanente des-
construidor de los acontecimientos acumulados” (Azurmendi Ayerbe,
1999: 47). Ikuspuntu honetatik, errealitatea seinale multzo bat da, egite
bat dena, partekatua dena.

Serge Moscoviciren *Psychologie des minorités actives* liburuaren sarreran
argi geratzen da une epistemologiko berri honen ezaugarriak eta defi-
nizioak: Moscovicik, bere liburuarekin, une berri bat ireki nahi duela
gizarte psikologian adierazten du, aurrekoekiko ikerketekin eta ikus-
puntuekin haustura bat egin nahi duelarik. Gizarte funtzionalistaren
ikuspuntu tinko batetik, gizartea gehiengoaren ikuspuntutik deskribatzen
duena, menperatzaileen ikuspuntutik, errealitatea uniforme, iraunkorra
eta aldaezina balitz bezala gizarte psikologi kritiko batera heldu nahi
du Moscovici-k. Etengabe aldatzen ari den errealitatea, era dinamikoa
batean deskribatu behar da, gutxiengotuen eta menperatuen ikuspuntutik
(Moscovici, 1996: 13-15).

**Laburbilduz, nire
iritziz, Ferguson /
Fishmanen
definizioak alde
batetik eta
menderatuen
definizioa
bestetik bi
objektu zientifiko
ezberdinak
aztertzen dituzte.**

**Eredu gatazkatu
honetan
prestigioak eta
hizkuntza
irudikapenak
leku handia
hartzen dute.**

**Gizarte
funtzionalistaren
ikuspuntu tinko
batetik, gizartea
gehiengoaren
ikuspuntutik
deskribatzen
duena gizarte
psikologi kritiko
batera heldu nahi
du Moscovici-k.**

Azken eredu hau “genetikoa” da Moscovici-ren hitzetan eta eredu honen eta funtzionalistaren arteko ezberdintasunak era honetan laburbiltzen ditu: “Pour mettre en lumière les différences qui séparent le modèle fonctionnaliste du modèle génétique, on pourrait dire que l’un envisage la réalité sociale comme donnée, l’autre comme construite; le premier souligne la dépendance des individus relativement au groupe et leur *réaction* à celui-ci, tandis que le second souligne l’interdépendance de l’individu et du groupe et l’*interaction* au sein du groupe; celui-là étudie les phénomènes du point de vue de l’équilibre, celui-ci du point de vue du conflit. Enfin, pour l’un, individus et groupes cherchent à s’adapter; en revanche, pour l’autre, ils tentent de croître, c’est-à-dire qu’ils cherchent et tendent à transformer leur condition et à se transformer (...) ou encore à créer de nouvelles façons de penser et d’agir” (Moscovici, 1996: 15).

Aipamen honetan, ikerketa “zaharraren” eta “berriaren” arteko ezberdintasunak eta abiapuntuak argi geratzen dira. Testuinguruari buruzko gogoeta horiek interesgarriak gertatzen dira soziolinguistikari aplikatzen badizkiogu, eta bereziki diglosia kontzeptuaren bi ereduak aplikatzen badiegu. Gizarte psikologian gertatzen den dikotomia, gurean ere aurkitzen da. Iparramerikarren ereduak, “funtzionalista estatikoa da” Boyer-en hitzetan (Boyer, 1991: 18), egoera *orekatuta* eta *egonkorra* balitz bezala deskribatzen du, eta abiapuntua, oinarrian, talde menderatzailearena da gehienbat. Gatazkaren ereduak aldiz, askoz dinamikoagoa eta eztabaidakorragoa da, egoera gatazka moduan hartzen du eta abiapuntua menderatuena da. Noski Moscoviciren hitzak nolabaiteko axioma utopista batean oinarritzen dira, argi agertzen denez aipatzen duenean: “ils [norbanakoak eta gizataldeak] cherchent et tendent à transformer leur condition et à se transformer (...) ou encore à créer de nouvelles façons de penser et d’agir” (Moscovici, 1996: 15). Aspektu utopista eta etiko hori, ikusi dugunez eta Zalbidetik aipatzen duenez menderatuen diglosiaren jarraitzaileen artean ere aurkitzen da.

Zalbidetik aurkezpen luzea eta argia egiten badu ere menderatuen diglosiari buruz agian hemen deskribatu dugun testuinguru epistemologikoan ez da gehiegi sartzen baina funtsezkoa den gatazka bai/ez auziari leku handia ematen dio. Aurretik artikulutxo honetan aipatu denez, gatazkaren gaian sartzea deserosoa egiten da alde askotatik eremu lausoa, etikoa, iritziei lotuta eta beraz azientifikoa delako. Adibidez, eskola soziolinguistikoko suitzarraren arabera diglosia ez da gatazkatua haien eremuan, hala ere beti esan genezake gatazkarik ez

dutela ikusten eskola honetako pertsonak alienatuak direlako, egoera menderatzailearen ikuspuntutik ikusten dutelako, menderatzailearen kosmobizioa barneratu dutelako. Berdina gertatzen da ezkutuan gelditzen den klaseen arteko borrokarekin eta maila etikorako jauzia bihurria egiten da: esklaboa pozik badago bere egoerarekin, gatazkarik gabe biziko du bere egoera, baina egoera normala edo justua al da? Alienatuta dago eta beraz askatu behar da?

Alienazioa kontzeptuarekin, gainera, kontuz ibili behar da, kontzeptu honen atzean suposatzen baita norbaitek errealitateari buruz duen diskurtsoa benetakoa dela, berak duela arrazoa eta besteek ez badute berdin ikusten alienatuak direlako da. Gauza bera kritikatzeko diote filosofo batzuk psikologiari, bereziki Freud-en psikologiari: gizon batek oediperen konplexua ez badu agerrian okerrago berarentzat horrek esan nahi barneratuta duela, baduzu baduzulako, ez baduzu are okerrago, ukatzen duzulako da eta beraz oraindik gehiago duzulako (Onfray, 2010).

Bistan da zientziaren ikuspegitik mota honetako balorazioak ez diruditelako zileegiak eta diglosiaren kontzeptuarekin arazo berdinarean aurrean aurkitu gairela dirudi.

Maila zientifikora eta soziolinguistikaren aplikazio praktikora itzulita badirudi funtsean iparramerikarren eta menderatuen diglosien arteko ezberdintasuna izen honekin aztertzen duten objektua aski ezberdina dela, lehendik hemen aipatu izan dugun moduan. Maila praktikoa, aplikazioan eta baita hizkuntza gutxitua nola biziraun zehazteko, badirudi iparramerikarren eredu klasikoak tresna gehiagok ematen dituela gatazkatsuen baina, Zalbiderekin artikulua 4. eta bereziki 5. ataletan agertzen den bezala. Gainera menderatuen diglosiak hizkuntza gutxiengotuen kasua aztertzen du, baina hizkuntzen barneko diglosia, Fergusonen definizioa erabiliz, ez dute gehiegi tratatzen eta maila teorikoan geratuz, zalantzarik gabe barne-diglosiak hizkuntzen arteko diglosia bezain injustua izan zitekeela dirudi.

Menderatuen diglosia aurkeztu ondoren, Zalbidetik Hudsonen 2002ko proposamena argi azaldu eta kritikatzeko du. Artikuluaren 3. atala bukatzeko diglosiaren osagaiak, atributu eta ezaugarriak laburbiltzen ditu Zalbidetik, gehienbat Fishmanen eredu jarraituz: diglosia gertaera soziala da, iraunkorra izan behar du, egoera diglosikoetan konpartimentazio soziofuntzionala gertatzen da hizkuntzen artean, hizkuntzak eskuratzeko bideak ezberdinak dira (eskola vs eguneroko jardura) eta diglosia ez da gatazka iturri nabarmen. Hemen ikusi dugunez aurreneko lau puntuak argiak badira azken puntua, gatazkarena, hain argia ez da.

Gatazkaren eredu aldiz, askoz dinamikoagoa eta eztabaidakorragoa da, egoera gatazka moduan hartzen du eta abiapuntua menderatuena da.

Aspektu utopista eta etiko hori, ikusi dugunez eta Zalbidetik aipatzen duenez menderatuen diglosiaren jarraitzaileen artean ere aurkitzen da.

Alienazioa kontzeptuarekin, gainera, kontuz ibili behar da, kontzeptu honen atzean suposatzen baita norbaitek errealtitateari buruz duen diskurtsoa benetakoa dela, berak duela arrazoia eta besteek ez badute berdin ikusten alienatuak direlako da.

4. ETA 5. ATALEN KRITIKA: KONTZEPTUAREN APLIKAZIOA EHRI

I

3. atalaren bukaeran, ikusi dugunez, Zalbidek egoera diglosiko baten ezaugarriak deskribatzen ditu, eta hori da seguruenik bere artikuluaen ekarpen handiena maila teorikoaren ikuspuntutik: diglosiari buruzko eredu ezberdinak aztertu ondoren, aplikagarriena eta zientifikoena den definizio bat proposatzea. Laugarren atalean, bere definizioaren arabera EHko egoera ea diglosikoa den aztertzen du Zalbidek, gainera egoera soziolinguistikoa bilakaera ere deskribatzen du. Maisu lan bat da atal honetan Zalbidek egiten duena eta gutxi gehitu ahal zaio. Izan ere, diglosia kontzeptuaren adiera klasikoa edo menderatuen adiera erabilia, zaila dirudi EHren egoera diglosikoa dela aldarrikatzea. Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa, bere egoera soziala eta politikoa bezala anitza da, eta azpi-kasu bakoitzeko hausnarketa egin beharko litzateke. Hala ere, iparramerikarren eredu kontutuan hartuta ez dirudi gaurko EHko egoera diglosikoa denik (barne diglosia ez dugu kontenplatu hemen). Zalbidek aipatutako ezaugarri guztien artean bi dirudite funtsezkoak ondorio horietara heltzeko. Alde batetik, diglosikoa izateko egoera batek iraunkorra izan behar du eta alderantziz oso aldakorra da gaur egungo EHko egoera soziolinguistikoa, aldaketa garaia da. Beste alde batetik, hizkuntzen arteko banaketa soziofuntzionala funtsezko ezaugarria da, eta kasu honetan ere ezin da esan EHko toki guztietan banaketa zorrotzik dagoenik, bereziki A hizkuntza oso sartuta dagoelako teorikoki b hizkuntzari dagozkion eremuetan, ez esateko hor ere nagusi dela. Definizioaren beste aldagaiak aztertzen baditugu ere ikusiko dugu nola EHko egoera ez den diglosikoa, ez erabatekoa behintzat.

Diglosiaren eredu “gatazkatsua” kontuan hartuta ere zaila dirudi aho batez euskararen/euskaldunen egoera diglosikoa dela baieztatzea. Auto-gorrotoa eta barne-alienazioa oraindik hiztun askok nozitzen badu ere, euskarari prestigio teoriko bat onartzen zaio. Adibidez, Eusko Jaur-laritzak kaleratu berri duen “Euskara: erabilerak, jarrerak, politikak” (2011) txostenaren arabera (EAERI buruzko datuak dira), inkestatuen %82ren arabera euskara desagertzea arazo bat litzateke, eta %86rentzat hizkuntza guztiek garrantzi bera dute. Erabileraren datuei so eginez ere zaila dirudi menderatuen ikuspuntutik egoera diglosikoa dela esatea, alderantziz irakurketa desegoki bat eginez elebakar batzuk minorizatuak beraiek direla aipatzen hasi dira adibidez, UPNren diskurtsoa hizkuntzei buruz, Pegenauteren garaian. Oinarri teoriko sendorik gabe, soziolinguistikaren oinarriko kontzeptu desitxuratu batzuk erabili ziren eskubide linguistiko

batzuk murrizteko. Eusko Jaurlaritzaren EAeri buruzko azken datuak erabiliz ere laburpen desegokiak egin zitezkeen (“Euskara: erabilera, jarrerak, politikak” 2011): euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutela adierazten du inkestatuen %17k familia giroan; %13k lagun artean eta %21ek lanean edo ikasketa lekuan. Datu horiei begira behintzat zaila dirudi EHN egoera diglosikoan bizi garela adieraztea.

Artikuluaren bosgarren atalean Zalbidek, diglosiak euskararen etorkizunerako duen garrantzia azpimarratzen du. Bere hausnarketa egiteko gogoeta proposamen interesgarria egiten du Zalbidek (107. or) eta ondoren logikoak diren ondorioetara heltzen da. Bere proposamena, beste artikulua batzuetan adierazi duen moduan, banaketa funtzionalean eta arnas-guneetan oinarritzen du. Bukaerako orrialdeetan bere proposamena praktikara eramateko eta arnas-guneen pisua indartzeko zeintzuk diren irabazi behar diren eremuak azaltzen du. Proposamena argia da, nire ustez gehiago landu beharko litzateke euskararen erregistroen problematika, euskararen barne diglosiak hizkuntzaren erabilerarako duen pisua aztertuz. Gainera interesgarria litzateke 123 orrialdean agertzen den ondorengo esaldia “Posible da, ordea, herritarren interes hurbila erakartzen duten gaiak euskaraz landu eta zirkulazioan jartzea” komunikazio teoretatik aztertzea, bereziki “framing” “agenda setting” eta “priming” ikuspuntutik (Martinez de Lunak, 2010: 53-67). Bosgarren atal honetan oso lan pedagogiko eta praktikoa egiten du Zalbidek eta hori oso eskertzekoa da. ●

BIBLIOGRAFIA:

- AZURMENDI AYERBE María José, *Psicosociolingüística*, Leioa, UPV/EHU, 1999.
- BOURDIEU Pierre, *Ce que parler veut dire*, Paris, Fayard, 1982.
- BOYER Henri, “Diglossie”: un concept à l’épreuve du terrain, *Lengas*, n° 20, Montpellier, UPV, 1986.
- BOYER Henri (direction), *Sociolinguistique: territoire et objets*, Paris, Delachaux et Niestlé, 1996.
- BOYER Henri, *Introduction à la sociolinguistique*, Paris, Dunod, 2001.
- CALVET Louis-Jean, *Linguistiques et colonialisme, petit traité de glottophagie*, Paris, Payot, 1974.
- CALVET Louis-Jean, *La guerre des langues et les politiques linguistiques*, Paris, Payot, 1987.
- CALVET Louis-Jean, *La (socio)linguistique*, Paris, PUF, 1993.
- FASOLD Ralph, *La sociolingüística de la sociedad, introducción a la Sociolingüística*, Madrid, Visor Libros, 1996.

Hori da seguruenik bere artikulua erabiltzeko modurik onena. Bere proposamena, beste artikulua batzuetan adierazi duen moduan, banaketa funtzionalean eta arnas-guneetan oinarritzen du. Bukaerako orrialdeetan bere proposamena praktikara eramateko eta arnas-guneen pisua indartzeko zeintzuk diren irabazi behar diren eremuak azaltzen du. Proposamena argia da, nire ustez gehiago landu beharko litzateke euskararen erregistroen problematika, euskararen barne diglosiak hizkuntzaren erabilerarako duen pisua aztertuz. Gainera interesgarria litzateke 123 orrialdean agertzen den ondorengo esaldia “Posible da, ordea, herritarren interes hurbila erakartzen duten gaiak euskaraz landu eta zirkulazioan jartzea” komunikazio teoretatik aztertzea, bereziki “framing” “agenda setting” eta “priming” ikuspuntutik (Martinez de Lunak, 2010: 53-67). Bosgarren atal honetan oso lan pedagogiko eta praktikoa egiten du Zalbidek eta hori oso eskertzekoa da. ●

Diglosia kontzeptuaren adiera klasikoa edo menderatuen adiera erabilia, zaila dirudi EHren egoera diglosikoa dela aldarrikatzea.

- FERNANDEZ Mauro, *Diglossia: a comprehensive bibliography, 1960-1990*, Amsterdam, Benjamins, 1993.
- FERNANDEZ Mauro, “Los Origenes Del Término Diglosia: Historia De Una Historia Mal Contada”, in *Historiographia Linguistica*, 22 vol., 1-2 zkiak, 163-195 orr. 1995.
- FERNANDEZ Mauro, “Leyenda e historia del término diglosia: su invención y primera expansión”, in Luis Santos Río eta abar ed. *Palabras, norma, discurso: en memoria de Fernando Lázaro Carreter* 447-464 orr. 2005.
- HUDSON Alan, “Diglossia: a bibliographic review”, in *Language in Society*, 21: 611-674. 1992.
- HUDSON Alan, “Outline of a theory of diglossia”, in *IJSL*, 157 zbk 1-48 orr. 2002.
- HUDSON Alan, “Rebuttal essay. Diglossia, bilingualism, and history: postscript to a theoretical discussion”, in *IJSL*, 157 zbk, 151-165 orr. 2002.
- JOLY Lionel, *Etude sociolinguistique du Pays Basque*. Argitaratu gabea. 2004.
- LAFONT Robert, *Quarante ans de sociolinguistique à la périphérie*, Paris, L’Harmattan, 1997.
- MARTINEZ DE LUNA Iñaki, “Framing: komunikazio-teorietatik euskaren beharizanetara” in BAT aldizkaria, 76.zbk, 53-67 orr. 2010.
- MOSCOVICI Serge, *Psychologie des minorités actives*, Paris, PUF, 1996.
- ONFREY Michel, *Le crépuscule d’une idole*, Paris, Grasset, 2010.